

SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACIÓN DE LA PARTE VIEJA DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN – DONOSTIAKO PARTE ZAHARRA BIRGAITZEKO HIRIGINTZAZKO SA-REN. (PARVISA) KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK

A. APLIKATU BEHARREKO KONTRATAZIO ESPARRUA

B. HARMONIZATUTAKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN KONTRATUAK

I. Oro har aplikatu beharreko arauak

1. KONTRATAZIO ORGANOA
2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK
3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK
4. KONTRATUA PRESTATZEA
5. KONTRATUA SINATZEA
6. KONTRATUA BETEARAZTEA

II. Plegua

III. Esleipen-prozedurak

1. OBRA KONTRATUAK
2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

IV. Baliabideak

C. HARMONIZATUTAKO ERREGULAZIOPEAN DAUDEN KONTRATUAK

I. Oro har aplikatu beharreko arauak

1. ESPEZIALITATEAK, KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ
2. KONTRATUA PRESTATZEA
3. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

II. Plegua

III. Esleipen-prozedura

IV. Baliabideak

1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA
2. ONDORIOAK ETA IRAUNGITZEA

V. Ofizios berrikustea

D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

III. ERANSKINA

**SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACION DE LA PARTE VIEJA DE
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN – DONOSTIAKO PARTE ZAHARRA
BIRGAITZEKO HIRIGINTZAZKO SA-REN (PARVISA)
KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK**

A. APLIKATU BEHARREKO KONTRATAZIO ESPARRUA

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAREN (PARVISA) kapital sozial osoa Udalarena da.

Sozietateak birgaitze bateratuko eremuen, eta beste eremu, zona, sektore edo auzo batzuen hiri-birgaitzeko edo -berrikuntzako jarduerak garatzea du xede, betiere hirigintza-zirkunstantziak edo zirkunstantzia sozioekonomikoak direla-eta beharrezkoak badira, eta Udalak agintzen badizkio. Nolanahi ere, Udalak hiriaren hirigintza-ondare eraikia birgaitzeko edo berritzeko, edo ondare horri balioa emateko agintzen dizkion beste proiektu berezi batzuk ere kudeatu egingo ditu.

Honako hauek dira Sozietatearen funtsezko jarduerak:

- a. Azterlan soziourbanistikoak lantzea, eta horien jarraipena egitea.
- b. Hirigintza-planak eta -proiektuak formulatzea (kargak eta etekinak banatzeko helburua dutenak barne), eta horiek indarrean dagoen hirigintza-araudiari jarraiki bideratzeko eta onartzeko ekimena gauzatzea.
- c. Eraikuntza eta urbanizazio oro birgaitzeko proiektuak idaztea.
- d. Birgaitze-jardunei lotutako obrak, eta Birgaitze Plan Bereziak edo beste edozein hirigintza-tresna egikaritzea dakarren obra oro egitea.
- e. Lurzoruaren programazioa eta prestaketa sustatzea, Birgaitze Plan Berezien eta beste edozein hirigintza-tresnaren zehaztapenak egikaritzeko.
- f. Desjabetze-espeditenteak idazten eta kudeatzen laguntzea, onuraduna ez denean.
- g. Birgaitze Plan Bereziak eta beste edozein hirigintza-tresna egikaritzearen emaitzazko ondasun, obra eta zerbitzu oro kudeatzea, ustiatzea eta zaintzea (agindutako eremuetan edo sektoreetan).
- h. Etxebizitzak sustatzea (Sozietateak berak edo beste administrazio batzuekin lankidetzan).
- i. Sozietateak edo Administrazioak bere ahalmenak erabiltzeko behar dituen dokumentu tekniko edo juridiko guztiak lantzea.
- j. Arestian adierazitakoekin zuzenean edo zeharka lotutako beste edozein helburu betetzea.

Sozietateak bere xedearen barruko jarduerak osorik edo zati batean garatu ahal izango ditu zeharka, xede berdina edo antzekoa duten sozietateetako akzioen edo partaidetzen titulartasunaren bidez.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen (hemendik aurrera, SPKL edota Legea, bi izen horietako edozein) ondorioetarako, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SA (PARVISA) “**sektore publikoaren**” zati da (Lege horren 3.1.d artikuluan aurreikusitakoaren arabera), eta Herri Administrazio ez bada ere, “botere esleitzaitzat” hartzeko Lege horren 3.3 artikuluan aurreikusten diren ezaugarriak betetzen ditu, eta beraz, SPKLAN bertan ondorio horretarako aurreikusten diren aginduak aplikatu beharko zaizkio.

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián - Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAK (PARVISA) sinatzen dituen kontratuak **kontratu pribatuak** dira.

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián - Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAK (PARVISA) sinatzen dituen kontratuak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

1. **Legearen eraginpean ez dauden kontratuak**, eta beraz, antolamendu juridiko pribatuaren eraginpean, edota hala badagokio, aplikatzen zaizkien arau berezien eraginpean daudenak. SPKLaren 4. artikuluan adierazitako kontratuak dira, hain zuzen ere; jarraibide hauei I. Eranskin gisa erantsi zaie artikulua hori. **Jarraibide hauek ez zaizkio aplikatuko.**
2. **Legearen eraginpeko kontratuak, harmonizatutako erregulaziopekoak ez badira.** Kontratu guztiak dira horrelakoak, hurrengo kategoriakoak izan ezik. **Jarraibide hauen B idatz-zatian** aurreikusitakoa aplikatuko zaie horrelako kontratuei.
3. **Legearen eraginpeko kontratuak, harmonizatutako erregulaziopekoak badira. Jarraibide hauen C idatz-zatian** aurreikusitakoa aplikatuko zaie horrelako kontratuei. Honako kontratu hauek dira:
 - Obra-kontratuak, aurreikusitako balioa 5.150.000 euro edo gehiago denean¹.
 - Hornidura-kontratuak, aurreikusitako balioa 206.000 euro edo gehiago denean¹.
 - SPKLaren II. Eranskinen 1-16. kategorietan bildutako zerbitzu-kontratuak, betiere horien aurreikusitako balioa 206.000 euro edo gehiago denean¹.

Adierazitako zenbateko horiek ez dute BEZa barnean hartzen.

¹ Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

Zenbatekoa alde batera utzita, SPKLaren 13.2. artikuluan (jarraibide hauei II-Eranskin gisa eranstean zaie artikuluko hori) adierazitako kontratuak ez dira inolaz ere harmonizatutako erregulaziopeko kontratutzat hartuko, ezta SPKLaren II. Eranskinen 17-27. kategorien barnean hartutako zerbitzuak ere.

B. HARMONIZATUTAKO ERREGULAZIOPEAN EZ DAUDEN KONTRATUAK

Honako kontratu hauek dira:

- Obra kontratuak, aurreikusitako balioa 5.150.000 euro baino gutxiago denean.
- Hornidura-kontratuak, aurreikusitako balioa 206.000 euro baino gutxiago denean.
- SPKLaren II. Eranskinen 1-16. kategorietan bildutako zerbitzu-kontratuak, betiere aurreikusitako balioa 206.000 euro baino gutxiago denean.
- Adierazitako zenbateko horiek ez dute BEZa barnean hartzen.
- SPKLaren II. Eranskinen 17-27. kategorietan barne hartutako kontratuak, eta adierazitako 13.2. artikuluko kontratuak, haien zenbatekoa edozein izanik ere.

I. Oro har aplikatu beharreko arauak

1. KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratatzeko ahalmena Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAREN (PARVISA) Estatutuetan eta aplikatu beharreko zuzenbide pribatuko arauetan xedatutakoaren arabera izango da.

Kontratazio Organoa Administrazio Kontseilua da, organo horrek kontratazioaren arloan gerenteari alde eman ditzakeen ahalordeak aparte utzi gabe.

Hala badagokio, bidezkozat jotzen dituen pertsoneri kontratuarekin lotutako jardun zehatzak gauzatzeko ahalmena eman ahal izango die Kontratazio Organoak.

2. KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Honako baldintza hauek betetzen dituzten kontratistek egin ahal izango dituzte kontratuak Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián - Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SArekin (PARVISA):

2.1. Gaitasun-baldintzak

Legearen 43. artikuluan aurreikusitakoak dira.

44. artikulua (enpresa ez-komunitarioentzat) eta 45. artikulua (bateragarritasun-baldintza bereziei buruzkoa) aplikatuko dira.

2.2. Ahalmena

46. artikuluan (pertsonei ahalmena), 47. artikuluan (enpresa komunitarioen ahalmena) eta 48. artikuluan (enpresaburuen batasunen gaitasuna) eskatutakoa izango da.

61. artikuluan arabera egiaztatuko da ahalmena.

2.3. Kontratatze inolako debekurik ez izatea

Honako hauek aplikatuko dira: 49.1. artikulua, kontratatze debekuei buruzkoa, eta 62. artikulua, kontratatze horrelako debekurik ez dagoela frogatzeko moduei buruzkoa.

2.4. Gutxieneko kaudimen-baldintzak

Kaudimen ekonomiko eta administratiboen eta kaudimen tekniko edo profesionalaren gutxieneko baldintzak, kasu bakoitzean, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan ezarritakoak izango dira, eta Plegu horretan aurreikusitako moduan egiaztatu beharko dira.

Plegu horretan, kaudimena egiaztatzeko aurkeztu behar diren agiriak zehazteaz gain, kaudimen hori egiaztatuko duten gutxieneko mugak ere finkatuko dira.

51. artikulua (kaudimen-eskaera), 52. artikulua (kaudimena kanpoko bitartekoekin bateratzeari buruzkoa) eta 53. artikulua (kaudimen-baldintzak zehazteari buruzkoa) aplikatuko dira.

2.5. Sailkapena

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusi denean baino ez da eskatuko administrazio-sailkapena.

3. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

3.1. Kontratuaren xedea

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAK (PARVISA) bere erakunde-helburuak betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak direnean sinatuko ditu kontratuak. Proiektatutako kontratuaren bitartez ase nahi diren premien ezaugarriak eta hedadura, eta premia horiek asetzeko kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna xehetasunez finkatuko dira, eta hori jasota utziko da prestatze-dokumentazioan.

74. artikuluan ezarritakoa aplikatuz zehaztuko da kontratuaren xedea.

3.2. Kontratuaren iraupena

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAK (PARVISA) kontratuen iraupena finkatuko du, eta, horretarako, prestazioen izaera, finantzaketaren ezaugarriak eta gauzatzea aldizka lehiapean jartzeko beharra hartuko ditu kontuan. Horri dagokionez, 23. artikuluan xehatutakoa aplikatuko da.

Hala badagokio, gerta litezkeen luzapenak Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusiko dira esanbidez.

50.000 eurotik beherako zenbatekoa duten obra-kontratuek eta 18.000 eurotik beherakoa duten beste edozein kontratuk (BEZa barnean hartu gabe), zuzenean esleitzekoak badira, nolana ere, gehienez urtebeteko iraupena izango dute, eta ezin izango dira luzatu.

3.3. Prezioa

Kontratuaren prezioari, aurreikusitako balioaren kalkulari eta lizitazio-aurrekontuaren zehaztapenari buruzko 75. eta 76. artikuluetako arauak aplikatuko dira, Herri Administrazio ez izatearen ondoriozko egokitzeekin.

Prezioen berrikuspena dagokion Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusi bada egingo da.

4. KONTRATUA PRESTATZEA

4.1. Eskaera

Kontratazioa hasteko, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAKo (PARVISA) langileek jarraibide hauei III. Eranskin gisa gaineratutako formularioa bete beharko dute, zuzeneko esleipena bidezkoa denean izan ezik Edonola ere, formularioak honako hauek jasoko ditu: proiektatutako kontratuaren bitartez bete nahi diren premien nondik norakoak eta hedadura, eta kontratu horren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko.

4.2. Pleguak

50.000 euroko zenbatekotik gorako kontratu guztietan (BEZa barnean hartu gabe), Plegu bat sortu beharko da ezinbestean. Obra-kontratuak ez diren kontratuen kasuan, bestalde, Kontratazio Organoaren irizpideari jarraiki, 18.000 euroko zenbatekotik gorako kontratuak badira (BEZa barnean hartu gabe), Plegua sortu ahal izango da.

Adierazitako zenbateko horretatik gorakoak diren kontratuetan, oster, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguarekin batera, Preskripzio Teknikoen Plegua ere beharrezkoa izango da.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratuetako subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

200.000 eurotik gorako obra-kontratuen eta 60.000 eurotik gorako obrakoez bestelako kontratuen lizitazioaren kasuetan, Pleguak berrikusi egin beharko dira, eta txosten juridikoa beharko dute.

Halaber, obra-kontratuetan, dagokion Obra Proiektua egin beharko da, eta horrek, hala badagokio, Preskripzio Teknikoen Plegua ordezkatu ahal izango du.

SPKLaren II. Eranskineko 17-27. kategorietan jasotako zerbitzu-kontratuak, 206.000 euroren pareko edo zenbateko horretatik gorako kontratuak badira, gainera, 121.1. artikuluan aurreikusitakoaren eraginpean geratuko dira.

5. KONTRATUA SINATZEA

Kontratua idatzita formalizatuko da.

Kontratua zuzenean esleitzea erabakitzen bada, jatorria berbera denez gero, dagokion aurrekontua igortzea eta horren onarpen idatzia jakinaraztea nahikoa izan liteke formalizazio hori gauzatzeko.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegua ez bada egiten, sinatu beharreko kontratuak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 26. artikuluan adierazitako aipamenak jaso behar izango ditu ezinbestean.

Alderdien eskubide eta betebeharrei dagokienez, horiek ezartzeko Pleguetan aurreikusten diren estatik kanpoko ezein klausula ezin izango da sartu, aurkeztutako eskaintzaren eta esleipen-ekintzaren xehetasunen ondoriozko zehaztapenekin.

6. KONTRATUA BETEARAZTEA

Kontratuaren ondorioei eta kontratua amaitzeari dagokienez, Pleguetan aurreikusitako baldintzak aplikatuko dira (halakorik erabakitzen bada, Herri Administrazioen kontratazioari buruzko araudiari lotu ahal izango zaizkie Pleguak), zuzenbide zibilaren osagarri gisa.

II. Plegua

Klausula Ekonomiko eta Administrazioen pleguak, prozedura negoziatuaren berezitasun propioekin, honako alderdi hauek eduki beharko ditu:

- Kontratazio Organoa.
- Publizitatea, kontratatzailearen profileraren sartzeko modua eta publizitate-gastuak.
- Kontratuaren xedea, eta hala badagokio, sortak.
- Kontratuaren bitartez betetzeko premiak eta kontuan hartu beharreko mota guztietako faktoreak.
- Lizitazioarako oinarritzko aurrekontua, eta, hala badagokio, aurrekontu hori urterokoetan antolatzea.
- Kontratu-izaerako dokumentazioa.
- Kontratuaren iraupena, eta hala badagokio, horren luzapenak xedatzea.
- Kontratua esleitzeko prozedura: prozedura irekia, murriztua edo negoziatua.
- Proposamenen aurkezpena:

Aurkezteko modua.

Forma eta edukia (aurkeztu beharreko dokumentazioa).

Aurkezteko epea eta tokia.

- Kontratista:

Ahalmena.

Gaitasun-baldintzak.

Kontratatzeko debekua.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa (gutxieneko agiriak eta mugak).

Kaudimen teknikoa edo profesionala (gutxieneko agiriak eta mugak).

- Ebaluazioa eta esleipena:

Esleitzeko irizpideak eta haien haztapena, edo, prozedura negoziatua bada, negoziatu beharreko alderdiak.

Onartutako proposamenei hasiera ematea.

Kontratuaren esleipena eta jakinarazpena.

- Esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentazioa eta horretarako epea.
- Kontratua formalizatzea eta horretarako epea.
- Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
- Kontratua jasotzea eta kontratatutako prestazioaren bermearen epea.
- Prezioa ordaintzeko erregimena.
- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.
- Erregimen juridikoa eta jurisdikzioa.

Horretaz gain, Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguak honako alderdi hauek ere zehaztu ahal izango ditu zenbait kasutan:

- Finantzaketa.
- Aldaerak edo hobekuntzak: Baimentzen ote diren zehaztea, eta horiek onartu ahal izateko kontratuak izan behar dituen baldintzak, mugak, modalitateak eta alderdiak adieraztea.
- Prezioen berrikuspena (aplikatu beharreko formula edo indize ofiziala adierazita), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 75. artikuluko 3. puntuan ezarritakoari jarraiki.
- Behin-behineko edo behin betiko bermeak.
- Sailkapena.
- Ahalmen- eta kaudimen-baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa aztertze data.
- Kontratuaren aldaketa: kontratua aldatzeko aukera ba ote dagoen adieraztea, eta halako aldaketarik badago, zein baldintzatan gerta daitekeen.
- Kontratatzaileari ezarritako konfidentzialtasun-betebeharraren hedatze objektiboa eta denborazkoa.
- Lagapena eta azpikontratazioa: Kontratua lagatzeko baldintzak adieraztea eta kontratatzaileak kontrata ditzakeen prestazioak edota horien ehunekoa identifikatzea (SPKLaren 209.2.c) eta 210.5. artikuluen arabera).
- Berandutzeagatiko eta egikaritze akastunagatiko zehapenak.
- Antolamendu juridikoaren aurka ez dagoen beste edozein itun, klausula eta baldintza.

III. Esleipen-prozedurak

SPKLaren 175. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, esleipen-prozedurak adieraziko dira ondoren, kontratu-moten eta horien zenbatekoen arabera.

Ondoren adieraziko den guztia aparte utzi gabe, Kontratazio Organoak elkarrizketa lehiakorreko prozedurara jo dezake, 163-167. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta artikuluko horietan aurreikusitako ondorioekin.

Orobat, kontratazioa arrazionalizatzeko sistemetara ere jotzeko aukera izango du (esparru-akordioetara, kontratazioarako sistema dinamikoetara, edota kontratazio-zentraletara); horrelako kasuetan, 180-189. artikuluetan aurreikusitakoa bete beharko du harmonizatutako erregulaziopeko kontratuak esleitu ahal izateko.

1. OBRA KONTRATUAK

1.1. Zenbatekoen arabera bereizketa

Obra-kontratuari dagokionez, hiru prozedura bereiziko dira, obraren zenbateko ekonomikoaren arabera. Hona hemen:

- a) 49.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratua.
- b) 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratua.
- c) 1.000.000 eurotik 5.149.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratua².

Adierazitako zenbateko horiek guztiek ez dute BEZa barnean hartzen.

1.2. 49.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen diren obra-kontratuak

Kontratu horien kasuan, **zuzeneko esleipenera** joko da, oro har. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAK (PARVISA) onartuko du. Ondoren, dagokion kontratua sinatuko da edo, besterik gabe, aurrekontua

² Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

esanbidez eta idazki bidez onartuko da (eta aurrekontu hori onartu dela adierazi beharko da).

Kontratua betetzen dela egiaztatu ondoren, prezioa ordainduko da; kontratatzaileak dagokion faktura aldeztatik eman beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Alabaina, negoziatutako prozedura (irekia edota murriztua) ere aukeratu ahal izango da, eta, kasu horretan, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

1.3. 50.000 eurotik 999.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen diren obra-kontratuak

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena **prozedura negoziatu bat (irekia edota murriztua)** bideratzearen bidez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza.

1.3.1. Prozedura negoziatua

Prozedura negoziatura jotzea erabakitzen bada, honako izapide hauek egin beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazioaren eskaera egiteko, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAKO (PARVISA) langileek III. Eranskin gisa gaineratutako formularioa bete beharko dute.
- b) **Eskaintzak eskatzea:** kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari (gutxienez) eskatuko zaizkie eskaintzak.
- c) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Plegu bat sortuko da (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz-zatian aurreikusten den edukia izango du Plegu horrek), baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere, edota dagokion Obra Proiektua.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratuaren subrogazio-baldintzen berri emango da,

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa denean, dokumentu horiek berrikusi egin beharko dira, eta txosten juridikoa beharko dute.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 200.000 eurotik gorakoa bada, kontratu horren lizitazioa eta esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Hori guztia idatz-zati honen f) letran aurreikusitakoa aparte utzi gabe.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan xedatuko dira enpresarekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak.

Sozietateko teknikariek esleipen arrazoiturako proposamena egingo dute, eta honako hauek jaso beharko dira: egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak, eta gauzatutako negoziazioak.

200.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen kasuan, esleipen-proposamenak txosten juridikoa beharko du.

- f) **Aplikatzeko beste kasu batzuk:** halaber, prozedura negoziatura ere jo ahal izango da, 154. artikuluan eta 155. artikuluko a), b), eta c) idatz-zatietan aurreikusten diren kontratuetan, kontratu horien zenbatekoa edozein dela ere.

Kasu horietan, 154. artikuluen a) eta b) idatz-zatietako eta 155. artikuluen a) idatz-zatiko kasuetan baino ez da argitaratuko kontratatzailearen profilean lizitazio-iragarpena.

Klausula Ekonomiko eta Administratiboetan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez den guztian, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da: 153., 160., 161., eta 162. artikuluetan, eta horiei lotzen zaizen eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

1.3.2. **Prozedura irekia edo murriztua**

Prozedura irekia edo murriztua aukeratzen bada, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

1.4. **1.000.000 eurotik 5.149.999,99 eurora bitarteko zenbatekora iristen den obra-kontratuak**

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena **prozedura ireki edota murriztu** bat bideratzearen bitartez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza.

Bi kasuetan, hau da, **prozedura irekian** eta **murriztuan**, honako arau hauek aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** Eskaera egiteko, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAKO (PARVISA) langileek III. Eranskin gisa gaineratutako formularioa bete beharko dute.
- b) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegu bat sortuko da (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz-zatian aurreikusten den edukia izango du Plegu horrek), baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere, edota dagokion Obra Proiektua.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratueta subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Dokumentu horiek berrikusi egin beharko dira, eta txosten juridikoa beharko dute.

- c) **Publizitatea:** Gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da lizitazioa, edota kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean, eta Klausula ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukera zehatza.

- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan zehaztuko da, baina epe hori ez da ezein kasutan izango hogeita sei (26) egunetik beherakoa, Kontratazio Organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten ezohiko zirkunstantziak agertzen direnean izan ezik.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak isilpekoak izango dira, eta gutunazal itxietan aurkeztu beharko dira, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko eta haztatzeko oinarri gisa balioko duten irizpideak Kontratazio Organoak finkatuko ditu, eta iragarpenean eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak aintzat hartu ahal izango dira, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa egikaritu edo entregatzeko epea, erabilera-kostua, ingurumen-ezaugarriak edo gizarte-eskakizunak betetzeari lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentzea, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua eta antzeko beste batzuk.

Aurkeztutako proposamenen ebaluazioari buruzko txosten objektiboa egiteko eta esleipen-proposamena Kontratazio Organoari igortzeko ardura hartuko duen Batzorde baten osaera eta ahalmenak jasoko dira Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan.

Batzordean aholkularitza juridikoa sartu ez bada, 200.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen kasuan esleipen-proposamena txosten juridikoarekin batera igorriko da.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua Kontratazio Organoak, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusitako proposamenak balioesteko irizpide objektiboen arabera, eta esleipen-proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak kontratua Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko da esleipena.

Pleguan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez bada, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da: prozedura irekiaren kasuan, 141., 142., 144. artikuluetan (adituen batzordearen edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzeari dagokionez aurreikusitakoa inolaz ere ezin izango da aplikatu) eta 145. artikuluan; prozedura murriztuaren kasuan, berriz, 146., 147., 149., 150., 151. eta 152. artikuluetan, eta horiei lotzen zaien eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan. Bi kasuetan, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

2. GAINERAKO KONTRATUAK (HORNIDURA, ZERBITZUAK ETA BESTE BATZUK)

2.1. Zenbatekoen arabera bereizketa

Kontratu horiei dagokienez (hornidura, zerbitzuak eta beste batzuk), hiru prozedura mota izango dira, horietako bakoitzaren zenbateko ekonomikoaren arabera. Hona hemen:

- a) 17.999,99 euroko zenbatekora bitarteko kontratuak.
- b) 18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duen kontratua.
- c) 100.000 eurotik 205.999,99 eurora³ bitarteko hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, eta gainerako kontratuak, zenbateko-mugarik gabe.

Adierazitako zenbateko horiek guztiek ez dute BEZa barnean hartzen.

2.2. 17.999 euroko zenbatekora bitarteko kontratuak

³ Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu horien kasuan, **zuzeneko esleipenera** joko da, oro har. Bidezko aurrekontua eskatuko da, eta Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAK (PARVISA) onartuko du. Ondoren, dagokion kontratua sinatuko da edo, besterik gabe, aurrekontua esanbidez eta idazki bidez onartuko da (eta aurrekontu hori onartu dela adierazi beharko da).

Kontratua betetzen dela egiaztatu ondoren, prezioa ordainduko da; kontratatzaileak dagokion faktura aldeztetik eman beharko du, eta faktura hori onartu egin beharko da.

Alabaina, negoziatutako prozedura (irekia edota murriztua) ere aukeratu ahal izango da, eta, kasu horretan, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

2.3. **18.000 eurotik 99.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak**

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena **prozedura negoziatu bat (irekia edota murriztua)** bideratzearen bidez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza. Horrelakorik ez badago, Kontratazio Organoaren esanbidezko erabakiaren bitartez egingo da aukeraketa.

2.3.1. **Prozedura negoziatua**

Prozedura negoziatua jotzea erabakitzen bada, honako izapide hauek egin beharko dira:

- a) **Eskaera:** Kontratazioaren eskaera egiteko, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAKo (PARVISA) langileek III. Eranskin gisa gaineratutako formularioa bete beharko dute.
- b) **Eskaintzak eskatzea:** kontratuaren xedea betetzeko ahalmena duten hiru enpresari (gutxienez) eskatuko zaizkie eskaintzak.

- c) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Plegu bat sortuko da (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz-zatian aurreikusten den edukia izango du Plegu horrek), baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere.

Kontratuaren zenbatekoaren zenbatekoa 50.000 eurotik gorakoa denean, pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratu etako subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa denean, dokumentu horiek berrikusi egin beharko dira, eta txosten juridikoa beharko dute.

- d) **Publizitatea:** Kontratuaren zenbatekoa 60.000 eurotik gorakoa denean, kontratu horren lizitazioa eta esleipena kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Hori guztia idatz-zati honen f) letran aurreikusitakoa aparte utzi gabe.

- e) **Ebaluazioa:** Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan edo, horrelakorik ez badago, eskaintzaren eskaeran, enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak finkatuko dira.

Sozietateko teknikariek esleipen arrazoiturako proposamena egingo dute, eta honako hauek jaso beharko dira: egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, eskaintza horiek onartzeko edo baztertzeko arrazoiak, eta gauzatutako negoziazioak.

60.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen kasuan, esleipen-proposamenak txosten juridikoa beharko du.

- f) **Aplikatzeko beste kasu batzuk:** halaber, prozedura negoziatura ere jo ahal izango da, 154. artikuluan, 157. artikuluko a), b), c), d) eta e) idatz-zatietan, 158. artikuluko a), b), c) eta d) idatz-zatietan eta 159. artikuluan aurreikusitako kontratuetan, kontratu horien zenbatekoa edozein dela ere.

Horrelakoetan, 154. artikuluko a) eta b) idatz-zatietako, 158. artikuluko a) idatz-zatiko eta 159. artikuluko kasuetan baino

ez da argitaratuko kontratatzailearen profilean lizitazio-iragarpena (prozedura negoziatura kopuru-arrazoiarengatik jotzen bada, eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada).

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez den guztian, 153., 160., 161., eta 162. artikuluetan, eta horiei lotzen zaien eta aplikatu daitezkeen gainerako artikuluetan aurreikusitakoa aplikatuko da, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

2.3.2. **Prozedura irekia edo murriztua**

Prozedura irekia edo murriztua aukeratzen bada, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa aplikatu beharko da.

2.4. **100.000 eurotik 205.999,99 eurora bitarteko zenbatekoa duten kontratuak**

Mota horretako kontratuen kasuan, esleipena **prozedura ireki edota murriztu** bat bideratzearen bitartez gauzatuko da, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da aukeratutako prozedura zehatza.

Bi kasuetan, hau da, prozedura irekian eta murriztuan, honako arau hauek aplikatuko dira:

- a) **Eskaera:** Eskera egiteko, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAko (PARVISA) langileek jarraibide hauei III. Eranskin gisa gaineratutako formularioa bete beharko dute.
- b) **Pleguak:** Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Plegu bat sortuko da (jarraibide hauen II. epigrafeko B idatz-zatian aurreikusten den edukia izango du Plegu horrek), baita Preskripzio Teknikoen Plegu bat ere.

Pleguan bertan edo dokumentazio osagarrian, hala badagokio, lan-kontratuetakoa subrogazio-baldintzen berri emango da, Sektore

Publikoko Kontratuen Legearen 104. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Dokumentu horiek berrikusi egin beharko dira, eta txosten juridikoa beharko dute.

- c) **Publizitatea:** Gutxienez, kontratatzailearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da lizitazioa, edota kontratatzailearen profilean eta probintziako egunkari batean, eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko dira aukera zehatzak.
- d) **Proposamenak aurkezteko epea:** Proposamenak aurkezteko epea Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusitakoa izango da, baina epe hori ez da ezein kasutan izango hamabost (15) egunetik beherakoa, Kontratazio Organoaren iritziz epe hori laburtzea justifikatzen duten ezohiko zirkunstantziak agertzen direnean izan ezik.
- e) **Proposamenak aurkezteko modua:** Proposamenak isilpekoak izango dira, eta gutunazal itxietan aurkeztu beharko dira, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan zehazten den moduan.
- f) **Ebaluazioa:** Kontratua esleitzeko eta haztatzeko oinarri gisa balioko duten irizpideak Kontratazio Organoak finkatuko ditu, eta iragarpenean eta Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adieraziko dira.

Kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak aintzat hartu ahal izango dira, hala nola kalitatea, prezioa, obraren erabilerari lotutako ordainsariak berrikusteko erabiliko den formula, prestazioa egikaritu edo entregatzeko epea, erabilera-kostua, ingurumen-ezaugarriak edo gizarte-eskakizunak betetzeari lotutako ezaugarriak, errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetiko edo funtzionalak, ordezeko piezen eskuragarritasuna eta kostua, mantentzea, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua eta antzeko beste batzuk.

Aurkeztutako proposamenen ebaluazioari buruzko txosten objektiboa egiteko eta esleipen-proposamena Kontratazio Organoari igortzeko ardura hartuko duen Batzorde baten osaera eta ahalmenak jasoko dira Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan.

Batzordean aholkularitza juridikoa sartu ez bada, 60.000 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen kasuan esleipen-proposamena txosten juridikoarekin batera igorriko da.

Ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari esleituko dio kontratua Kontratazio Organoak, Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan aurreikusitako proposamenak balioesteko irizpide objektiboen arabera, eta esleipen-proposamena kontuan hartuta.

Kontratazio Organoak kontratua Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera esleitzen ez badu, erabaki hori arrazoitu egin beharko du.

Kontratatzailearen profilean argitaratuko da esleipena.

Pleguan edota jarraibide hauetan esanbidez aurreikusten ez bada, honako hauetan aurreikusitakoa aplikatu beharko da: prozedura irekiaren kasuan, 141., 142., 144. artikuluetan (adituen batzordearen edo erakunde tekniko espezializatuaren esku-hartzeari dagokionez aurreikusitakoa inolaz ere ezin izango da aplikatu) eta 145. artikuluan; prozedura murriztuaren kasuan, berriz, 146., 147., 149., 150., 151. eta 152. artikuluetan, eta horiei lotzen zaien eta aplika daitezkeen gainerako artikuluetan. Bi kasuetan, Herri Administrazio ez izatearen ondorioz bidezkoak diren egokitzeekin.

IV. **Baliabideak**

Kontratu horien prestaketari, esleipenari, ondorioei, betetzeari edo iraungitzeari lotutako edozein arazori dagokionez, **jurisdikzio zibilean** soilik jarri ahal izango da errekurtsua.

Horretaz gain, sinatutako kontratuen ondorioen, betearazpenaren eta iraungitzearen inguruan gerta litezkeen desadostasunak konpontzeko, **arbitrajera** jo ahal izango da, abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera. Gainera, dagokion Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan adierazi beharko da arbitrajera joko dela, eta halako Plegurik ez badago, beste edozein kontratutan.

C. HARMONIZATUTAKO ERREGULAZIOPEAN DAUDEN KONTRATUAK

Honako kontratu hauek dira:

- Obra-kontratuak, aurreikusitako balioa 5.150.000 euro edo gehiago denean⁴.
- Hornidura-kontratuak, aurreikusitako balioa 206.000 euro edo gehiago denean⁴.
- SPKLaren II. Eranskinaren 1-16. kategorietan bildutako zerbitzu-kontratuak, aurreikusitako balioa 206.000 euro edo gehiago denean⁴.

Adierazitako zenbateko horiek ez dute BEZa barnean hartzen.

Hori guztia 13.2. artikuluko kontratuen kasuan izan ezik; aurreikusitako balioa edozein dela ere, horiek ez dira harmonizatutako erregulazioekotzat hartuko.

I. Oro har aplikatu beharreko arauak

Jarraibide hauen I. epigrafeko B idatz-zatian harmonizatutako erregulaziopean dauden kontratuetarako aurreikusitakoa aplikatuko zaie harmonizatutako erregulaziopean dauden kontratuei, honako espezialitate hauekin:

1. ESPEZIALITATEAK, KONTRATISTEK BETE BEHARREKO BALDINTZEI DAGOKIENEZ

1.1. Espezialitateak gaitasun-baldintzei dagokienez

43. artikuluan xedatutakoaz gain, 44. artikulua ere aplikatu beharrekoa izango da (Munduko Merkataritzaren Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duten Estatuetakoen enpresen arteko

⁴ Edo, bestela, hemendik aurrera Europako Batzordeak finkatuko duen kopurukoa, SPKLaren hamalagarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoaren arabera.

elkarrekikotasunari buruzko txostena ez da beharrezkoa izango kasu horretan).

1.2. Espezialitateak gutxienerako kaudimen-baldintzei dagokienez

Kaudimena egiaztatzeko bitartekoei dagokienez, jarraibide hauen B.I. epigrafeko 2.4 idatz-zatian ezarritakoaz gain, nolahi ere, 63-68. artikulua aplikatuko dira.

1.3. Kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak betetzea

69. eta 70. artikulua aplikatuko dira, kalitate-bermeari buruzko arauak eta ingurumen-kudeaketari buruzko arauak betetzen direla egiaztatzeari dagokionez.

Horri buruzko aurreikuspenak Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguan ezarriko dira.

2. KONTRATUA PRESTATZEA

Preskripzio teknikoak zehazteko eta ezartzeko, 101. artikuluan ezarritako arauak aplikatuko dira.

Orobat, 102. artikuluan (kontratua betearazteko baldintza bereziki buruzkoa), 103. artikuluan (fiskaltasunari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei lotutako betebeharreri buruzko informazioa) eta 104. artikuluan (lan-kontratuen subrogaziorako baldintzei buruzko informazioa) xedatutakoa aplikatuko da.

Premia atzerazekin jakin bati erantzuteko kontratua sinatzea beharrezkoa bada, edota interes publikoko arrazoiak direla-eta esleipena bizkortu behar bada, Kontratazio Organoak haren izapidetzea premiazkotzat hartu ahal izango du, prestatzeko dokumentazioan behar bezala arrazoituz. Kasu horretan, epeak laburtzeari buruzko 96.2.b) artikuluan aurreikusitakoa aplikatu beharko da.

Nolanahi ere, Klausula Ekonomiko Administratiboen Plegua eta Preskripzio Teknikoen Plegua berrikusi egin beharko dira, eta txosten juridikoa beharko dute.

3. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Behin-behineko esleipena eta behin betiko esleipena bereizten dira, eta, ondorio horietarako, 135. artikuluan xedatutakoa aplikatu beharko da.

Behin betiko esleipenarekin burutuko da kontratua, eta idazki bidez formalizatuko.

II. Plegua

Klausula Ekonomiko eta Administratiboen Pleguak, jarraibide hauen II. Epigrafeko B idatz-zatian harmonizatutako erregulaziopekoak ez diren kontratueterako adierazitako alderdiez gain, honako alderdi hauek ere zehaztu ahal izango ditu zenbait kasutan:

- Kalitate-bermeari eta ingurumenaren kudeaketari buruzko arauak betetzearen egiaztapena (SPKLaren 69. eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera).
- Kontratua betearazteko baldintza bereziak eta kontratua ez betetzearen ondorioak (SPKLaren 102. artikuluan aurreikusitakoaren arabera).
- Fiskaltasunari, ingurumenaren babesari, enpleguari eta lan-baldintzei buruzko informazioa (SPKLaren 103. artikuluan aurreikusitakoaren arabera).

III. Esleipen-prozedura

Harmonizatutako erregimenpean dauden kontratuak SPKLaren 174. artikuluan ezarritakoaren arabera esleituko dira, hau da, Herri Administrazioiko kontratueterako aurreikusten den modu berean, honako aldaketa hauekin:

- a) Irizpide subjektiboak balioesteko adituen batzordearen esku-hartzeari buruzko 134. artikuluan 2. idatz-zatiko bigarren paragrafoan ezarritakoa ez da aplikatuko.
- b) Eskaintzen ezohiko edo neurrigabeko izaera sumatzeko irizpideei buruzko 136. artikuluan 1. eta 2. idatz-zatietan ezarritakoa ez da aplikatuko.
- c) Kontratuak formalizatzeari buruzko 140. artikuluan ezarritakoa ez da aplikatuko.
- d) Proposamenen azterketari eta esleipen-proposamenari buruzko 144. artikuluan ezarritakoa ez da aplikatuko.
- e) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak esleitzeko prozedura negoziatura jo daitekeen kasuei buruzko 156. artikuluan ezarritakoa ez da aplikatuko.

Premia-arrazoiak direla-eta legean ezarritako gutxienerako epeak betetzea ezinezkoa denean, epeak laburtzeari buruzko 96.2.b) artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Aurkeztutako proposamenen ebaluazioari buruzko txosten objektiboa egiteko eta esleipen-proposamena Kontratazio Organoari igortzeko ardura hartuko duen Batzorde baten osaera eta ahalmenak jasoko dira Klausula Ekonomiko eta Administrazioen Pleguan.

Batzordean aholkularitza juridikoa sartu ez bada, esleipen-proposamena txosten juridikoarekin batera igorriko da.

Lizitazioa eta esleipena honako hauetan argitaratuko da gutxienez:

- a) Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean eta 309. artikuluan adierazten den kontratazio-plataforman edota sozietatearen mende dagoen Herri Administrazioak kudeatutako sistema baliokidean.
- b) Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean.

Halaber, lizitazio-iragarpenak eta behin-behineko eta behin betiko esleipenen iragarpenak kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

IV. Baliabideak

1. PRESTAKETA ETA ESLEIPENA

Behin-behineko esleipen-akordioei, lizitazioa arautzen duten Pleguei, prestazioaren ezaugarriak zehazten dituzten Pleguei eta izapide-ekintzei dagokienez, **kontratazio-arloko errekurtsu berezia** aurkez daiteke, betiere azken horiek esleipenari buruz zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedurarekin jarraitzea ezinezkoa dela xedatzen badute edota defentsa-gabezia sortzen badute edo bidezko eskubide edo interesetan kalte konponezina eragiten badute.

Kontratazio-arloko errekurtsu berezia Donostiako Udalean aurkeztuko da.

Errekurtsua Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SAREN (PARVISA) bulegoetan (Konstituzio plaza, 1-behea, 20003 Donostia) nahiz Donostiako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango da.

Errekurtsua SPKLaren 37. eta 38. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki bideratuko da.

Errekurtsuaren ebazpenaren aurka, soilik Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera aurkeztu ahal izango da **administrazioarekiko auzi-errekurtsua**.

SPKLaren II. Eranskineko 17-27. kategorietan barne hartutako zerbitzuen kontratuak –haien zenbatekoa edozein izanik– harmonizatutako erregulaziopean ez badaude ere, kontratu horien zenbatekoa 206.000 euro edo gehiago bada, contratazio-arloko errekurtsu berezia aurkeztu ahal izango da, baita administrazioarekiko auzi-errekurtsua ere, idatz-zati honetan aurreikusitako baldintzen arabera.

2. ONDORIOAK ETA IRAUNGITZEA

Kontratu horien ondorioei, betetzeari edo iraungitzeari lotutako edozein arazori dagokionez, soilik **jurisdikzio zibilean** jarri ahal izango da errekurtsua.

V.- Ofizioz berrikustea

Prestaketa-ekintzen eta harmonizatutako erregulaziopean dauden kontratuen behin-behineko edo behin betiko esleipen-ekintzen ofiziozko berrikustek azaroaren 26ko 30/1992 Legearen zazpigarren titulua leheneraren kapituluaren ezarritakoaren arabera gauzatuko dira.

Ekintza horiek baliogabetzat edo kaltegarritzat hartzeko eskumena Donostiako Udalak izango du, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 34. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

D. KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzako SAK (PARVISA) Internet bidez hedatuko du kontratatzailearen profila, haren kontratazio-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta informazio horretarako sarbide publikoa bermatzeko.

Kontratatzailearen profilerako sarbidea izateko modua Pleguetan eta lizitazio-iragarpenetan zehaztuko da, besteak beste.

Kontratatzailearen profilaren euskarri izango den sistema informatikoak gailu jakin bat eduki beharko du; gailu horren bitartez, bertan sartutako informazioa hedatzen hasten den unea behar bezala egiaztatu ahal izango da.

Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián - Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzako SAREN (PARVISA) kontratatzailearen profilean, honako datu eta informazio hauek argitaratuko dira:

- a) Kontrataziorako barne-jarraibide hauek.
- b) Kontratuen lizitazioen iragarpena, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatutako kontratuak izan ezik.
- c) Hala badagokio, kontratuen behin-behineko eta behin betiko esleipena, kontratu txikiak eta publizitaterik gabe negoziatutako kontratuak izan ezik.

Horrez gain, Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzako SAREN (PARVISA) kontratazio-jarduerari buruzko edozein datu eta informazio ere jaso dezake kontratatzailearen profilak; besteak beste, honako hauek: 125. artikuluan

adierazten diren aldez aurreko informazio-iragarpenak, lizitazio irekiak edo egungo lizitazioak eta horiei dagokien dokumentazioa, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako prozedurak, Kontratazio Organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen guneak eta komunikabideak eta abar.

I. ERANSKINA

4. artikulua. Salbuetsitako negozioak eta kontratuak

1. Lege honen esparrutik salbuetsita egongo dira honako negozioak eta harreman juridikoak:

- a) Funtzionario publikoen zerbitzu-harremana eta lan-legeriak araututako kontratuak.
- b) Erabiltzaileak aplikazio orokorreko tarifa, tasa edo prezio publikoren bat ordaintzera behartzen dituen zerbitzu publiko baten prestazioan oinarritutako harreman juridikoak.
- c) Estatuaren Administrazio Orokorrak Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileekin edo zerbitzu komunekin, Unibertsitate Publikoekin, Autonomia Erkidegoekin, tokiko erakundeekin, erakunde autonomoen eta gainerako erakunde publikoekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenak, edota erakunde eta entitate horiek euren artean sinatutako lankidetzak-hitzarmenak, euren izaera dela-eta Lege honi lotutako kontratuzat hartzen direnean izan ezik.
- d) Arautzen dituzten berariazko araei jarraiki Administrazioak zuzenbide pribatuaren mendeko pertsona fisiko edo juridikoekin sinatutako hitzarmenak, betiere haien xedea Lege honek edo administrazio-arau bereziek arautzen dituzten kontratuen xedearen barnean hartzen ez bada.
- e) Europako Erkidegoa Eratzen duen Itunaren 296. artikuluaaren esparruan bildutako hitzarmenak, baldin eta defentsa-sektorean erabakitzen badira.
- f) Estatuak beste Estatu batzuekin edota nazioarteko zuzenbide publikoko erakundeekin sinatutako akordioak.
- g) Herri Administrazioen mende dauden zuzenbide publikoko erakunde zuzeneko jardueri lotutako hornidura-kontratuak, baldin eta haien jarduerak merkataritza-, industria- edo finantza-izaera edota antzekoa badu, eta kontratu horietan adierazitako ondasunak ondare-trafiko juridikora itzultzeko helburuarekin hartu badira, eraldatu ondoren edo eraldatu gabe, helburu berezien arabera, betiere Legeak eman dizkien berariazko eskumenez baliatuz jarduten badute erakunde horiek.
- h) Europako Erkidegoa Eratzen duen Itunari jarraiki Europako Erkidegoko kide ez diren bi herrialde edo gehiagorekin sinatutako nazioarteko akordioen ondoriozko kontratuak eta hitzarmenak, baldin eta obra jakin bat batera gauzatzera edo ustiatzera zuzendutako obrei edota hornidurei buruzkoak, edota proiektu jakin bat batera gauzatzera edo ustiatzera zuzendutako zerbitzu-kontratuei buruzkoak badira.
- i) Tropen estazionamenduen inguruan sinatutako nazioarteko akordio jakin bati jarraiki gauzatutako kontratuak eta hitzarmenak.
- j) Nazioarteko erakunde jakin baten berariazko prozedura bati jarraiki esleitutako kontratuak eta hitzarmenak.
- k) Arbitraje- eta adiskidetze-zerbitzuei lotutako kontratuak.

l) Baloreak edo bestelako finantza-tresnak igortzeari, erosteari, saltzeari edota transferitzeari lotutako finantza-zerbitzuei lotutako kontratuak, batik bat Estatuaren finantza-kudeaketari lotutako eragiketak, sektore publikoko erakunde eta entitateek fondoak edo kapitala lortzera zuzendutako eragiketak, Espainiako Bankuak emandako zerbitzuak edota diruzaintza-eragiketak.

m) Sektore publikoko erakunde edo entitate jakin bat ondasun edota eskubide jakin batzuk edota zerbitzu jakin bat ematera behartzen duten kontratuak, ondasun horiek hartzen dituen edo zerbitzu hori jasotzen duen erakundeak (sektore publikoko erakundea bada eta Lege honen mende badago) dagokion kontratua sinatzeko haren preskripzioekin bat etorri beharra aparte utzi gabe.

n) Negozio juridikoak, haiei jarraiki erakunde jakin bati prestazio jakin bat ematea eskatzen zaionean, betiere erakunde horri, 24.6. artikuluan adierazitakoaren arabera, haren bitarteko propioaren eta zerbitzu teknikoaren izaera esleitu bazaio. Hala eta guztiz ere, enkargatutako prestazioak gauzatzeko bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikotzat jotzen diren erakundeek sinatu beharreko kontratuak Lege honen mende egongo dira, kontratu horiek sinatzen dituen erakundearen izaeraren eta prestazio horien zenbatekoaren arabera bidezkoak diren baldintzetan. Nolanahi ere, Aurreiazko Titulu honen II. Kapituluaren 2. Atalean ezarritako mugak gainditzen dituzten obra-kontratuak, zerbitzu-kontratuak edota hornidura-kontratuak badira, zuzenbide pribatuko erakundeek 121.1 eta 174. artikuluetan ezarritako arauak bete beharko dituzte kontratu horiek prestatzeko eta esleitzeko.

o) Jabari publikoko ondasunei lotutako baimenak eta emakidak, eta ondare-ondasunak ustiatzeko kontratuak (7. artikuluan zehaztutakoez bestelakoak); bakoitzari dagokion berariazko legeriak arautuko ditu horiek, Lege honen preskripzioak aplikatu beharrekotzat esanbidez hartzen diren kasuetan izan ezik.

p) Ondasun higiezin, balore negoziagarrien eta jabetza ukiezin salerosketa-, dohaintza-trukatze- edo errentamendu-kontratuak, eta ondasun higiezin inguruko gainerako antzeko negozio juridikoei lotutakoak, betiere ordenagailu-programei buruzkoak ez badira eta, beraz, hornidura- edo zerbitzu-kontratutzat hartu behar ez badira. Izan ere, horrelakoak kontratu pribatuak izango dira beti, eta ondare-legeriaren arabera arautuko dira. Kontratu horietan, Aurreiazko Tituluaren II. Kapituluaren 1. Atalean araututako ohiko kontratuetako prestazioak ezin izango dira sartu, baldin eta horien aurreikusitako balioa negozioaren guztizko zenbatekoaren % 50 baino handiagoa bada, edo ondare-kontratuaren prestazio bereizgarriarekin 25. artikuluan aurreikusitako baldintzetan lotura- eta osagarritasun-harremanak ez badituzte. Bi kasu horietan, nolana ere, prestazio horietarako kontratu independentea egin beharko da, Lege horretan ezarritakoari jarraiki.

q) Estatuko ikerketa-erakunde publikoek eta Autonomia Erkidegoetako antzeko erakundeek sinatutako zerbitzu- edo hornidura-kontratuak, baldin eta ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko edo zerbitzu teknikoko proiektuak gauzatzeko beharrezkoak diren prestazio edo produktuak badituzte xede, horien ondoriozko emaitzen aurkezpena eta lorpena trafikora sar daitezkeen itzulkin zientifikoekin, teknologikoekin edo industrialekin lotuta badaude, eta norgehiagoka-prozesuen bitartez, erakundeko ikerketa-taldeei haiek gauzatzeko agindua eman bazaie.

2. Aurreko idatz-zatian zerrendatutako kontratuak, negozioak eta harreman juridikoak beren arau berezien bitartez arautuko dira, eta Lege honen printzipioak aplikatuko dira sor litezkeen zalantzak eta hutsuneak konpontzeko.

II. ERANSKINA

13. artikulua.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoa gorabehera, aurreikusitako balioa edozein dela ere, honako kontratu hauek ez dira harmonizatutako erregulaziopekotzat hartuko:

a) Xede gisa irratidifusioko programen erosketa, garapena eta produkzioa eta koprodukzioa dutenak, irratidifusioko erakundeei gagozkiela, baita irratidifusioko denborari buruzkoak ere.

b) Kontratazio Organoak oso-osorik ordaindutako ikerketa- eta garapen-kontratuak, betiere emaitzak erakunde horrek bere jarduera betetzean eskusiboki baliatzeko gordetzen ez badira.

c) Europako Erkidegoa Eratzen duen Itunaren 296. artikulua zehaztutako esparruan bildutakoak, baldin eta defentsa-sektorean erabakitzen badira.

d) Sekretutzat edo erreserbatutzat hartutakoak, edo betearazteko segurtasun-neurri bereziak eskatzen dituztenak indarrean dagoen legeriaren arabera, edo funtsezko interesen babesak hori eskatzen duenean Estatuaren segurtasunerako.

e) Xede gisa Kontratazio Organoei telekomunikazioetako sare publikoak eskueran jartzea edo ustiatzea, edo jendea telekomunikazio-zerbitzu batez edo gehiagoz hornitzea dutenak.

III. ERANSKINA

Sozietatearen izena		KONTRATAZIO ESKAERA	
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de la Parte Vieja de Donostia-San Sebastián – Donostiako Parte Zaharra Birgaitzeko Hirigintzazko SA (PARVISA)			
Eskatzailea		Arloa	Data
KONTRATAZIOAREN XEDEA ETA KONTRATU MOTA			
BETE BEHARREKO PREMIEN IZAERA ETA HEDADURA			
KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIOA ETA EGOKITASUNA			
INTERESEKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK			
GUTXI GORABEHERAKO PREZIOA			
Gerentearen oniritzia		Gerentearen oniritzia	
Izena		Izena	
Data		Data	